

Reflection and Practice of Translation in the Work of Joseba Sarrionandia

Aiora Jaka Irizar

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, SPAIN

aiora.jaka@ehu.es

ABSTRACT

My thesis focuses on the works translated into Basque by writer Joseba Sarrionandia (Iurreta, Bizkaia, 1958), and analyzes both the theoretical discourse on translation and the translation strategies used by this Basque writer. The initial hypothesis is that Sarrionandia's view on translation coincides with a postmodern discourse on translation, and that he is in fact the first translator in the history of Basque literature to have practiced translation from a postmodern point of view.

In order to verify this hypothesis, the first chapter deals with the different translation theories that have dominated the Western thought, highlighting the contradictions presented by the principal modern theories and emphasizing the advantages that more recently developed postmodern theories offer. The main body of this chapter draws on the contributions made by the following theories to the postmodern discourse on translation: Descriptive Translation Studies, the Manipulation School, the Cultural and Power Turn in Translation Studies, deconstruction, postcolonial theories of translation, hermeneutic theories and poetics of translation.

The second chapter examines the reflections on translation expressed by other Basque translators prior to Sarrionandia. Although no well-structured school or theorization has emerged from such thoughts, many of their ideas that are continually repeated in the introductions to translations (such as fidelity towards the original, subordination and insignificance of the translator before the original's superiority, the translator's invisibility, the transparency of the translation, etc.) seem to answer a modern conception of translation. Though one might notice some indications of a new way to conceive translation in the work of two of Sarrionandia's precursors, namely Jon Mirande (1925-1972) and Gabriel Aresti (1933-1975), it is in the work of Joseba Sarrionandia that the main features of a postmodern discourse on translation start to manifest themselves in a more coherent way.

These features (such as the translator's intervening power, the creative nature of translation, the indefinite, open, changeable nature of any text, the originality of each new reading, the creation of knowledge through translation, etc.) are discussed in the third chapter as seen and practiced by Sarrionandia, and it is demonstrated that not only his reflections on translation, but also the translation strategies he uses (pseudo-translations, fictitious translators, mediating languages, variations and imitations, translations without originals, etc.) correspond to the ideas defended by the postmodern theories of translation.

The thesis concludes that translation and creation are for Sarrionandia the two faces of a same coin, and that the “literature of literature”, which consists of the many relationships between different literary traditions, can only develop if authors translate or rewrite the texts of their precursors. Translation, considered in the modern discourse of translation as a bad copy of the untouchable original text, takes on a completely new sense in Sarrionandia’s work, and it is presented as a recreation that allows the development of the possibilities that remained hidden in the original.

KEYWORDS: Joseba Sarrionandia, mediating text, postmodern theories of translation, pseudo-translation, recreation, rewriting.

Completion of Thesis

Place: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Spain

Year: 2011

Supervisor: Gidor Bilbao Telletxea

Original language: Basque

Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan

LABURPENA

Nire tesiaren helburua Joseba Sarrionandiak (Iurreta, Bizkaia, 1958) euskarara itzultako lanak ikertzea izan da, euskal idazle honek itzulpenaren inguruan egindako gogoeta teorikoa eta praktikan erabilitako itzulpen-estrategiak aztertuz. Hasierako hipotesia da Sarrionandia itzultzaile postmodernoa dela, eta bera izan dela euskal literaturaren historian itzulpena ikuspuntu postmoderno batetik gauzatu duen lehen itzultzailea.

Hipotesi horiek egiaztatzeko, Mendebaldeko pentsamenduan nagusi izan diren itzulpenaren teoria desberdinak eztabaidatzen dira lehen kapituluan, teoria moderno nagusien kontraesanak agerian jarritz eta berrikiago garatutako teoria postmodernoek eskaintzen dituzten abantailak nabarmenduz. Kapitulu honen zati nagusia itzulpen-ikasketa deskribatzaileek, manipulazioaren eskolak, ikasketa kulturalak, itzulpenaren eta boterearen arteko harremanen ikerketek, dekonstrukzioak, teoria postkolonialek, teoria hermeneutikoek eta itzulpenaren poetikek egindako ekarpenek osatzen dute.

Ondoren, bigarren kapituluan, Sarrionandia baino lehenagoko euskal itzultzaileek itzulpenaren inguruan egindako gogoetak aztertzen dira, eta erakusten da Euskal Herrian ez dela itzulpenaren inguruko diskurtso edo teorizazio egituraturik garatu, baina itzultzaileen hitzaurreetan behin eta berri errepikatzen diren hainbat ideia (jatorrizkoarekiko fidelotasuna, itzultzailearen otzantasun eta txikitasuna originalaren handitasunaren aurrean, itzultzailearen ikusezintasuna, itzulpenaren gardentasuna eta abar) itzulpena ulertzeko modu moderno baten ondorio direla. Jon Miranderen (1925-1972) eta Gabriel Arestiren (1933-1975) lanetan itzulpena lantzeko modu postmoderno baten lehen zantzuak agertzen diren arren, Sarrionandiarengan gauzatzen dira modu koherenteago batean itzulpenaren diskurtso postmodernoarene ezaugarriak.

Ezaugarri horiek (itzultzailearen esku-hartze ahalmena; itzulpenaren izaera sortzailea; edozein testuren izaera zehaztugabe, ireki eta aldakorra; irakurketa berri bakoitzaren originaltasuna; itzulpenaren bidezko jakintzaren sorkuntza eta abar) hirugarren kapituluan azaltzen dira, eta Sarrionandiaren lanarekin uztartzen dira. Argi erakusten da ezen, Sarrionandiak itzulpenaren inguruan egiten dituen gogoetak ez ezik, erabiltzen dituen itzulpen-estrategiak ere (apokrifo edo sasi-itzulpenak asmatzea, fikziozko itzultzaileak aurkeztea, zubi-hizkuntzak erabiltzea, sorburu-testu baten inguruan bariazio eta imitazioak sortzea, jatorrizkorik gabeko itzulpenak aurkeztea...) itzulpenaren teoria postmodernoekin uztargarriak direla.

Tesiaren ondorioetan adierazten da itzulpena eta sorkuntza txanpon beraren bi aldeak direla Sarrionandiarentzat, eta tradizio desberdinen arteko hartu-emanen osatzen den “literaturaren literatura”, azken batean, idazle aitzindarien testuak itzuliz edota berridatziz baizik ezin dela garatu. Itzulpenaren diskurtso modernoan jatorrizko testu ukiezinaren kopia txartzat jo izan den itzulpenak guztiz bestelako zentzua hartzen du Sarrionandiaren lanetan, eta jatorrizkoan azaleratu gabe zeuden aukerak garatzea ahalbidetzen duen birsorkuntza gisa ageri zaigu.

GAKO-HITZAK: berridazketa, birsorkuntza, Joseba Sarrionandia, itzulpenaren teoria postmodernoak, sasi-itzulpena, zubi-hizkuntza.